

bidegileak



Mª Angeles Garai (1930)

Egilea:

ELIXABETE GARMENDIA

itulu bat darama, apaltasunez baina inork zalantzan jarriko ez diona: gerra ostean Bizkaiko lehen andereñoa izatearena. Izan ere, 1957an Bilboko San Nikolas elizaren lokaletan ikastola txikitxo bat martxan jarri zenean, bera izan zen irakasle lehenengo eta bakarra. Hala ere, bere burua definitzerakoan beste alde bat azpimarratzen du harrotasunez: Bilboko euskalduna –euskal hiztuna– izatea sortzez, aita-amei esker. Bere ibilbideak ikastolen sorrerara ez ezik, gerra ondoren Bizkaiko hiriburuan euskal giroa berpizten eta mamitzen joan zen sarera garamatza. Eta sare horretan



M^a Angeles Garai (1930)

maisua eta gidaritzat Xabier Peña aitortzen du M^a Angelesek; oraindik zordun sentitzen da harekiko, merezi adinako ezagutzarik izan ez duelakoan. Karnetik gabeko abertzalea, gurasoengandik eta Peñarengandik jasotako ondarearen familia eta inguruan zabaltzen jakin izan du M^a Angeles Garaik, zalaparta handirik gabe baina tinko.

Bilboko euskalduna

Har ditzagun bi toki eta egoera kontrajarri. 1940ko hamarkadan gaude, gerra amaitu berri, frankismoa da jaun eta jabe. Bilboko Zazpi Kaleak; hor Garai-Miotatarren etxebizitza, hasieran Tenderian eta gero Artekalen. Aita, Laukizekoa, oso gazterik joana zen hiri-burura eta «Euskalduna» ontzioletan lan egiten zuen. Abertzalea eta euskaltzalea, kanpoan ezin baina etxean «beti euskaraz» mintzatzen zen, eta hizkuntza horretan hezi zituen alabak. Neskatoak kalera irtetea izaten ziren kontuak, euskaraz entzun zietela eta, auzokoek *aldeanatzat* hartzen zituztenean. Beste eszenarioa Atxondoko ibarrean dago, Anbotoren magalean, Axpen. Hara joaten dira Artekaleko neskak udan, amaren jaiotetxera, Miotatarren *Uruburu* baserrira. Hango bizimoduak ez dauka zerikusirik Zazpi Kaleetakoarekin. M^a Angelesek haurretan ez, geroxeago, euskal giroan sartu eta Orixeren *Euskaldunak* irakurtzean aurkitu eta ulertu zuen Axpen eza-

gututako mundua: artazuriketa, trumoiak, ekaitzak... Berak ezarian-ezarian obserbatu eta agian kaletarraren begiekin gutxietsitakoa, poema bihurturik itzultzen zitzaion. Horrela bada, batu zituen tartean amildegi bat balego bezala bizi izandako bi munduak: kalea eta baserria, hiria eta erroak. Eta, bide batez, nagusitu zitzaion inguru erdaldundu batean euskaldun izatearen harrotasuna.

Ordurako ikasketetan aurrera zihoan M^a Angeles, batez ere amaren bultzadari esker. Izan ere, amak, Axpeko baserritarrak, garbi zeukan ze etorkizun mota nahi zuen alabentzat: «zuek ikastera». Bostetik bat, M^a Angeles, maistra egitea lortu zuen. 1930ean jaioa, auzoko ikastetxean hasi, Unamuno institutuan jarraitu eta Eskola Normalean burutu zituen ikasketak. Karrera amaituta, klase partikularrak emateari ekin zion, gaztelaniaz, Xabier Peñarekin hain zuzen ere. Hortxe bada, urte askotan zehar maisu izango zuenarekin harremanetan iada.

Xabier Peñaren sarea

1946 inguruan iritsi zen Xabier Peña Albizu tolosarra Bilbora, bere anaia Xebe mendizale ezagunarekin batera. «Seguros Bilbao»n aurkitu zuten lana gerra osteko erbestetik zetozen bi anaiek. Seguroetan, bizibidea ateratzeko lana, baina gaineratzean Xabierrek ordainsaririk gabeko beharrari heldu zion. 1949 aldera hasi zen euskarazko klaseak ematen gazteei. Hasieran sei-zortzi baldin baziren ikasleak, denborarekin milaka izatera iritsi ziren, adin guztietakoak.

M^a Angeles Garai 1954an sartu zen Peñaren alfabetatze klaseetan ikasle, astean hiru or-

duz, arratsaldeetan. Horrezaz gain, udan ikastaro osoagoak izaten zituzten, Euskaltzaindiak Erribera kalean zeukan egoitzan. Euskara lantzeko egin ohi zituzten irakurketak gogoratzen ditu bereziki M^a Angelesek, Txomin Agirre, Lizardi eta Orixeren testuak, bere erroekin adiskidetu zuten haiek. Hizkuntza lantzeaz gain Euskal Herrian zeharreko txango eta mendi irteerak antolatzen zituzten asteburu eta oporretan, Peñatarren mendizaletasuna tarteko. Horrela ezagutu zituen M^a Angelesek Aralar eta Urbasa, Aizkorri eta Euskal Herriko beste hainbat mendi eta bazter. Xabier Peña, ordea, ez zen gazteen artean



Xabier Peñaren ikasle eta lagun talde bat

egiten zuen lanarekin asetzen; euskaltzaletasuna soma zitekeen puntuan, hantxe zen zer-bait eratzen. Bera denera iritsi ezinik, ikasleak irakasle bihurtzen zituen, sarea armiarmaren modura zabalduz. Laguntzaileen artean Garaitar ahizpetako bat zeukan, Emille; eta M^a Angeles bera ere, emakume talde bati eus-kara irakasten ibili zen aldi batean; talde horretan Asun Candina, Blanca Villar eta Espe

Zabala zeuden, giro abertzalean ezagunak ziren emakumeak.

Xabier Peña nekagaitza zen eta dagoeneko oinarritzakoago beste eginkizun bat ere ikusten zuen: haurrak euskaraz eskolatu ahal izateko ikastolak sortu beharra. Poliki-poliki joan zen bidea prestatzen, horretarako behar ziren hari muturrak lotzen. Tartean, ordurako ikas-le aurreratua zuen M^a Angeles Garai.



Xabier Peñari omenaldia Arantzazun, 1974an; ezkerretik eskuinera: Emille Garai, Antonio M^a Labaien, Xabier Peña, Nemesio Etxaniz eta M^a Angeles Garai

Munduko euskal biltzarra

1956ko irailaren 23tik 29ra egin zen Parisen Munduko Euskal Biltzarra. Gerra amaitu zenetik hamazazpi urte joanak ziren, konponbide azkar baterako itxaropenak zapuztuta zeuden iada, Francoren erregimenak ukiezina zirudien, baina Euskal Herrian bertan bazeuden burua altxatzen hasi ote zeneko zantzuak eta gerra ondoren erbesteratutakoek berriz, Herriarekiko lokarriak sendotu beharra ikusten zuten. Horrela bada, erbestean zeuden erakundeek bultzadaz, Diasporako eta barruko ordezkari politiko, sindikal eta kultural ugari bildu ziren Parisen, Euskal Herriaren egoeraz hausnarketa egiteko.

M^a Angeles Garaik *Garmendia* abizena erabili zuen Parisera joan zenean; norbaitek ezarri zion deitura hori, berearen lehen hiru hizkiak aprobetxatuz. Izan ere, esan gabe doa, klan-destinitate erabatekoan egin beharra zegoen bidaia. Oraingoan ere bide erakusle, Xabier Peña. Horrela ezagutu zituen Garaik, Parisen, Donostian ikastolen lehen pausoak ematen ari zen Elbira Zipitria eta haren jarraitzailetako bat, Karmele Esnal.

Munduko Euskal Biltzarrak irakaskuntzaren arloari arreta berezia jarri zion. Egia da han sortutako batzordetik ez zela zuzenean ezer zehatzik atera, baina zalantzarik gabe han hitz egindakoak izan zuen eraginik han-hemenka ernetzen ari zen kezka horretan: euskarazko irakaskuntza eratu beharra haurrentzat.



M^a Angeles Garai andereño egin zen garaian

Biltzarrean izan eta urtebete baino lehen M^a Angeles Garai Elbiraren ikastolarako bidean zen. Izan ere, Xabier Peña, Zipitriaren Donostiako ereduari jarraiki, Bilbon ikastola bat sortzeko pausoak ematen ari zen: guraso talde bat bildu, lokalak bilatu... eta andereñoa. Horretarako M^a Angeles Garai zeukan begiz jota. Magisteritza karreraduna, klaseak ematen aritua, euskara landuta zeukana... Garairi kosta zitzaion erabakitzea: «Ni lehenengotan atxakia bila eta sartzeko gogo handi barik nenbilen, baina azkenean berera eroan ninduan». Hala aitortu zion M^a Angelesek berak Gregorio Arrieni, honek Bizkaiko ikastolei buruzko historia idatzi zuenean. Baiezkoak historia horren lehen lerroan jarri zuen Garai halabeharrez.



Xabier Peña Agurtzane Alberdi andereñoarekin

Zipitriaren ikastola

Gerra osteko ikastolen historia Elbira Zipitriarekin hasten den bezala, Bizkaiko lehen andereñoa izango zenak ere haren ikastolan ekin zion ibilbideari. Donostiako Parte Zaharrean, Fermin Calbetón kaleko 26. zenbakian, bigarren solairuan, zeukan ikastola Elbirak, bere etxebizitzan hain zuzen ere. M^a Angelesek gela ilun bat gogoratzen du. Gela iluna, «baina Elbira hurrekin zegoenean beste gozotasun bat hartzen zuena». Izan ere, Zipitria, zorrotza izan arren oinarrietan eta baita izaeraz ere, pedagogia aldetik berritzailea zen, inolako zerikusirik ez frankismoaren menpeko eskola eta kolegioetan indarrean zegoen irakasteko estiloarekin; hasteko, adierazgarria da gela berean neskak eta mutilak biltzea, gainerako ikastetxeetan ez bezala. Gerra aurretik andereño izana, Saran urte batzuk pasa ondoren, 1943an itzuli zen Donostiara, eta berriro irakaskuntzari heldu, klandestinitatean. Bere irakas moldeetan sarritan zaila da bereiztea zer den pedagogia berritzaileari erantzuten diona eta zer beharrak eragindakoa, erresistentzia garaiko ikastola baitzen berea. Piaget, Freinet, Montessori eta abar, European zeuden joera aurrerakoien berri bazuen, baina badirudi autodidakta izan zela batez ere bere pedagogia mamitzerakoa. Oinarri ideologikoak abertzaletasunean eta erlijioan zeuzkan. Arlo horiezaz gain, zenbakiak, irakurketa eta idazketa, gramatika eta abestiak lantzen zituen bereziki hurrekin.



M^a Angeles lehenengo ikastolako oroitzapenak aletzen

Ikasketa prozesua globala eta aktiboa zen oso. Gelan haurrak lurrean esertzen ziren, eta idazketa egin behar zutenerako zizeilu mahaia hormatik jaitsi eta zabaltzen zuten. Klasea ez zen ordea gela horretara mugatzen, eta ingurua ezagutzeko helburuz sarri egiten zituzten irteerak hiriko txokoetara, hurbil samar zuten Urgull mendiko Gaztelura bereziki. Testu-libururik apenas zuten, Ixaka López Mendizabalen *Xabiertxo* zen ezinbestekoa, gerra aurrean argitaraturiko beste bizpahiru libururekin batera. Gainerantzean, eskoletan ez bezalako materiala erabiltzen zuten: *txo-txak* idazten ikasteko, eta *pottokak*, balio ezberdineko bolatxo batzuk, zenbakietarako. Hortxe, txotx eta pottoketan, eta kantuen zerrenda amaigabeen zertzen da grafikoki gerra osteko ikastola aitzindarien ondare

pedagogikoa, Elbirak bere atzetik etorri ziren lehen andereñoen zabaldu ziena.

Hilabete egin zuen M^a Angelesek Donostian, Elbiraren irakaspedeak jarraitzen. Denbora gutxi samar aukeran; gerora, Elbirarenean praktikak egitea ohizko bihurtu zenean, ikasturte osoa ematen zuten andereñoen horretan. Baina beste guztia prest zegoenez gero, M^a Angelesek ikastola ireki beharra zeukan lehenbailehen. Bilbora itzuli eta Xabier Peñari Donostiako egonaldiako emandako diruaren kontuak kitatzen hasi zitzaionean, hark aitortu zion nori esker ordaindu zen ikastaldia: Kontxa Goiri, Arostegiren alar-gunari esker. Proiektu berriak eragiten zuen eskuzabaltasunaren beste adierazpen bat. Izan ere, pausoz pauso, alez ale, askoren aha-leginaren baitan irabazteko apustua zen hura.



Garai, ikastola bihurtu zuen etxean

Eta azkenik, ikastola zabalik

1957ko urriak 9: Bilboko lehen ikastolak ateak zabaldu ditu. Lekua, San Nikolas elizako katekesia, Don Jesús González apaizak bere ardurapean utzitakoa. Zipitriaren gela ez bezala, «toki zoragarria, handia, argia» gogoratzen du M^a Angeles Garaik. Ikasle zaharrena, 6 urterekin, Jasone Irarragorri, gerora abokatu ikasketak egin eta politikagintzan ezagun egindakoa. Gainerako ikasleak 3 eta 5 urte bitartekoak ziren, Gregorio Arrienek bildutako zerrendaren arabera hauexek: Edurne Alegria, Isabel eta Ander Andia, Jon Bilbao, Arantza Foruria, Nerea eta Idoia Ganda-

riasbeitia, Gaizka Jiménez, Patrik Markoartu, Paul eta Iñigo Muñoyerro, Mikel Rotaetxe eta Ane Miren Zubiri. Den-denak familia abertzale euskaldunetakoak.

Horiek ikastola estreinatu zuten ikasleak. Laster izango zituzten, ordea, lagun berriak. 1958ko urtarrilean beste taldetxo bat hasi zen ikastolara, eta haiekin baita beste andereño bat ere, Agurtzane Alberdi, Bizkaiko bigarren andereño izenda dezakeguna. Ikasle talde berriak bazuen berezitasun bat: ama hizkuntza gaztelania zuten gehienek. Horrela bada, arazoa sortu zitzaien andereñoek, nola bideratu etxeko hizkuntzak ezberdintzen zituen bi taldeak. Nola moldatu euskara zeki-



San Nikolas ikastolako haurrak andereñoekin Begoñan (1958)



Jasone Irarragorri, San Nikolaseko ikasle zaharrena, ikaskideekin Begoñan (1958)

tenak ez atzeratzeko eta ez zekitenak euskaldun bihurtzeko. Elbira Zipitriari kontsulta egin zioten, baina Donostiako esperientziatik ezin ba ikasi, hango ikastolan ez zutelako arazo hori. Azkenean behintzat, M^a Angelesek dioenez, honela asmatu zuten irtenbidea: talde biak bereizi, andereño banarekin, eta jolaserako orduan bakarrik batzen zituzten.

Ikasle guztiak hurbil samarrekoak ziren, baina Bilbo hiri handia izan, eta autoz bila joaten ziztaizkien andereñoak etxez etxe, goizean eta arratsaldean, jantokirik ez eta nork bere etxean bazkaltzen baitzuten ikasleek. Autoa aipatu eta M^a Angelesek ezin dio barreari eutsi:

auto arrosa bat omen zen, Bilbon bakarra eta nabarmena. Klandestinitatean ibili behar eta haiek hala.

Nolanahi ere, familia girokoa zen ikastola. Gurasoak, abertzaletasunean konprometituak, seme-alabei irakaskuntza euskaraz ematearren abentura hartan murgilduak. Haietako batzuen artean osatutako Juntak zuzentzen zituen ikastolako burubideak, lokali eta garraioari zegozkienak eta andereñoen ordaintzea. Soldata, 1.500 pezeta inguru hilean, gizarte segurantzarik gabe oraindik. Ikasturtea ondo amaitu zutela eta, festa batekin ospatu zuten, pozez gainezka. Hurrengo kurtsoa korapilotsuagoa izango zen.

Etxea ikastola bihurturik

Kontua da 1958tik aurrera ikastola jaioberriei oztopoa besterik ez zaiela sortzen agintarien aldetik. Hasteko, Gurgide gotzainak San Nikolas elizatik bota egin zituen, katekesiaren tokian euskarako klaseak ematen zirela jakitean. Hurrena, beti ere Elizaren itzala bilatuz, Iralabarriko Frantziskotarren komentuan aurkitu zuten aterpea, Aita Eugenio Agirretxeren laguntzaz; kurtsoa atzeratuta hasi behar izan zuten, 1959ko urtarrilean. Bakeak ez zuen, ordea, asko iraun; azaroan hara non datorkien Sánchez Azpuru Irakaskuntzako inspektorearen bisita eta salaketa. Bi andereño atxilotu eta gaua komisarian pasa behar; hurrengo goizean beste biak eta Sabin Zubiri, Gurasoen Juntako Administrazio arduraduna galdekatu zituzten poliziek. Ondorioz, Bizkaiko Gobernadore Zibilak isunak ezarri zizkien bost lagun horiei: 25.000 pezetakoa Zubiriri, hamarna mila pezetakoak Mari Carmen Gangoiti eta Estibaliz Gereñori, eta bosna mila pezetakoak Agurtzane Alberdi eta Severina Mardarazi. Salaketa, haxe: Espainiako batasun nazionalaren kontra zihardutela, katekesiaren izenean eta haurren tolesgabetasunaz baliatuz, beste-lako ideiak sartu nahian.

Gauzak horrela, ikastolak etxeetan antolatu eta, susmorik ez sortzeko, batetik bestera txandan ibiltzea erabaki zuten. Gehienetan gurasoen etxeetan ematen ziren klaseak, baina bazen tartean klaseak bere etxean ema-



Santa Agedako korua Bilboko kaleetan

ten zituen andereñorik. M^a Angelesen kasuan bi aldeak batzen dira, andereño eta ama izatea, hortaz, ez da harritzekoa berak bide honi heldu izana.

1962-63 ikasturtea zen, eta urte batzuetan irakaskuntzatik kanpo egon ondoren, etxean zabaldu zuen ikastola. Ordurako ezkontuta zegoen, Xabier Peñaren taldean ezagututako bilbotar batekin hain zuzen ere, «Euskalduna»ko peritoxa bera, eta bi seme zituzten: Ander eta Jon. Horrela bada, Agirre-Garaitarren etxean, Alameda Urkijo 98an, ikasle taldea bildu zuen M^a Angelesek. Bere bi semeak tartean zirela, hogeiren bat neska-mutil hiru eta bost urte bitartekoak. Ikasle bakoitzarengatik 150 eta 330 pezeta artean

jasotzen zuen irakasleak hilean, gurasoen ahalbideen arabera. Haur gehienek euskara zuten ama-hizkuntza; gutxi batzuek gaztelania, baina haiek ere euskara ondo ikasita atera omen ziren ikastolatik.

M^a Angelesen ikastola honek beste zeregin bat ere bete zuen, andereñoak pedagogia aldetik prestatzea alegia. Izan ere, ordurako, eta zailtasun guztien gaineratik, ikastolak ugaltzen ari ziren ez bakarrik Bilbon, baita Bizkaia osoan ere, eta andereñoak prestatzeko bi bide erabiltzen ziren: hizkuntza aldetik Xabier Peñarekin alfabetatze azkarreko ikastaldi bat burutzea eta pedagogia aldetik Julene Berrojalbiz edo M^a Angeles Garairenean praktikak egitea.



Eskolatik kanpokoak

Ikastola, dena den, ez zen gelako hormetan bukatzen, ezta gutxiagorik ere. Toki fisiko mugatu bat eta irakaskuntza arautua baino askoz gehiago zen, bete-betean. Eta euskal pizkundearen sarean sartuta zegoen. Horregatik, ez da harritzekoa klase orduetatik kanpoko ekintzei heltzea hasiera-hasieratik.

Horretan ere, sustatzaile aitzindari modura, Xabier Peñarekin egingo dugu topo. Alde batetik, Garaik gogoratzen duenez, irratsaio batzuk antolatzen zituen Peñak eta horietan ikastoletako umeei parte harrarazten zien. Bestetik, berehala eratu ziren udalekuak, non eta Arrazolan gainera, Axpetik bertan, Atxondon. 1960tik 1964ra egin ziren han, *Kiputxena* baserrian hain zuzen ere. Etxe hau lehendik ere ostatu modura erabili ohi zen, eta bertara joateko burubideak Jose Antonio

Retolazak egin zituen; izan ere, Retolaza apai-za, urte batzuk geroago *Kili Kili* haurrentzako aldizkaria sortuko zuena, Arrazolan erretore zegoen garai hartan. Xabier Peñak, antolatzaile gisa, azken urteko udalekuei buruz egindako txostenean, M^a Angeles Garai ageri da udalekuko zuzendari, Begoña Foruria eta M^a Asun Zubiaurrekin batera. Garai amaren sorlekuan ibili zen, beraz, berriro, oraingoan txikitatik ezagunak zituen bazterrak haur hiritarrei erakusten. Tenderiako neskatxak izandako esperientzia ikasleekin partekatzen.



Gregorio Arrienen liburua: *Bizkaiko ikastolak, 1957-1972*



Azkue ikastola zuzentzen zuen Andere Elkartea



Arrazolako udalekuan, 1964an

Emakumezkoen monopolioa

Ez da harritzekoa ikastoletan lehenengo sartu ziren gizonezko irakasleei nahiz udalekuetan ibili ziren begiraleei andereño deitzea haurrek, izan ere, hasieran, emakumezkoak besterik ez baitziren irakasleak. Bizkaian, M^a Angeles Garairen atzetik, poliki baina etengabe, andereño andana sortu zen. Dagoeneko azaldu dira zenbaitzuk, eta hortik aurrera ere, ikastola non sortzen zen, han andereñoak. Algorta-Getxoko San Nikolas ikastola, Deustu, Portugalete, Lekeitio, Markina, Santutxuko Karmelo, Elorrio, Gernika, Durango, Zornotza, Ermua... 60ko hamarkadan, Bilboko auzoetan eta Bizkaiko herri handienetan ikastolak sortu ahala han zeuden andereñoak, erreleboko lasterketetan bezala, lekukoa hartzeko prest, M^a Angeles Garaik Elbira Zipitriari hartu zion bezala.

Ikastolak eratu eta gobernatzeko garaian, ordea, gizonezkoak ageri dira batez ere, Juntetako zerrendetan ikus daitekeen bezala. Hala ere, bada salbuespen esanguratsu bat: Bilboko Azkue ikastola. 1966an zabaldu zen, Elkano kaleko 6. zenbakian. Lehen Hezkuntza arautzen zuen legeak irekitako zirrikituaz baliatuz, Euskaltzaindiaren babespean eta Alfontso Irigoienek eskainitako laguntzari esker sortu ahal izan zen. Bultzatzaile nagusiak Julene Berrojalbiz eta Tere Rotaetxe izan ziren. Eta hain zuzen ere, bi emakume horiek gidatzen zuten ikastetxeko Junta, *Andere*



M. Angeles Garai, Bilboko euskalduna

Elkartea, hogeiren bat emakumek osatzen zutena, horien artean Karmele Goñi, Bilboko Museo Etnografikoko zuzendaria, Garairekin euskara ikasten ibilitako emakumeak, umerik ez izan arren irakaskuntza euskalduna lortu nahi zutenak... Garaiak aldatzen ari ziren beste seinale bat haxe: andereñoen artean, gizonezko irakasleak ere sartu zirela ikastola horretan. Lehen andereñoak, dena den, etxetan jardundako laurak izan ziren, hau da, Txaro Ansorregi, Julia Egia, Begoña Foruria

eta M^a Angeles Garai. Hori izan zuen bere azken lanaldia irakaskuntzan Bizkaiko gerra osteko lehen andereñoak.

Gaur egun, hiru seme eta zazpi biloba dituela, Bilbori atxikia jarraitzen du Garaik, harro familia erabat euskalduna hazi izanagatik, eta beste batzuei ere horretan lagundu izanagatik. Bere leloa: «Euskara dotoretasunez jantzi behar dogu». Euskaraz berba egiteagatik *aldeana* deitzen zioteneko konplexua aspaldi erantzi zuen.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Garai familia*
- *Gregorio Arrien*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1876-2 (Lan osoarena)
84-457-1880-0

L.G.: VI-563/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística